

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

50. astea (2025eko abenduaren 8tik 14ra)


Gripearen birusaren zirkulazioak goranzko joerari eusten dio ospitaleetan, baina tasak behera egin du lehen mailako arretan jaiegunaren eraginez. Bronkiolitisaren tasak goranzko joerarekin jarraitzen du eta COVID-19aren tasa baxu mantendu da.

- ***Aste honek jaiegun bat dauka, eta honek eragin zuzena du datuen baliozkotasunean, bereziki Lehen Mailako Arretatik jasotako datuetan.***
- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 432,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (537,0/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen tasak behera egin du aste honetan. Bronkiolitisaren tasak gora egiten jarraitzen du eta COVID-19arena baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 50 lagin jagoleen % 70,0 baieztatu da, 21 gripe-birus eta 4 ABS detektatu direlarik, baina ez SARS-CoV-2rik.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 22,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (22,1/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA eta bronkiolitis (< 2 urte)-tasak intentsitate maila baxuetan mantentzen dira, larrialdietako gripe-sindromea berriz intentsitate altuko mailara igo da.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 1040 gripe-birus, 257 ABS eta 13 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikoko jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 432,4 kasukoa izan da (537,0/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 294,8/100.000 izan da Araban, 401,9/100.000 Bizkaian eta 544,7/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2889,7 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1698,1 eta 530,0 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuen (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 266,7 kasukoa izan da (299,1/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasak ESI guztietan jaitsi dira.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 50. astea	Tasa 49. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	310,8	448,5	0,69 (0,64-0,75)
Arabar Errioxako ESI	764,2	772,7	0,99 (0,74-1,32)
Barakaldo-Sestaoko ESI	360,5	442,2	0,81 (0,72-0,92)
Barrualde-Galdakaoko ESI	444,5	517,2	0,86 (0,80-0,92)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	443,2	557,8	0,79 (0,74-0,85)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	351,0	515,7	0,68 (0,61-0,75)
Uribeko ESI	309,9	437,0	0,71 (0,64-0,78)
Bidasoako ESI	562,6	611,4	0,92 (0,81-1,05)
Debararrenako ESI	544,6	669,9	0,81 (0,71-0,92)
Debagoienako ESI	465,1	536,4	0,86 (0,74-1,01)
Donostialdeako ESI	487,2	565,4	0,86 (0,80-0,91)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	621,6	757,3	0,82 (0,73-0,91)
Tolosaldeako ESI	659,4	727,3	0,90 (0,79-1,03)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 54,5 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (63,1/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du eta 591,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (580,9/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 0,7 kasutan mantentzen da (0,9/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 50 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 70,0 baieztatu dira. 21 gripe-birus (15 A(H3) eta 6 A(H1)) eta 4 ABS atzeman dira, baina ez SARS-CoV-2rik.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna altu mantentzen da % 42,0an (% 59,8 aurreko astean) eta ABSren positibotasuna % 8,0raino igo da (% 6,1 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,0koa izan da (% 0,0 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	50. astea		49. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	21	59,8	49	42,0	265	38,3
SARS-CoV-2	0	0,0	0	0,0	9	1,3
ABS	4	6,1	5	8,0	22	3,2
Metaneumobirus	1	0,0	0	2,0	1	0,1
Parainfluenza	2	0,0	0	4,0	17	2,5
Adenobirus	1	0,0	0	2,0	5	0,7
Errinobirus	3	13,4	11	6,0	152	22,0
Urtaroko CoV	3	6,1	5	6,0	20	2,9
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	5	0,7

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratortzen direnak. AIAL tasa 22,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (22,1/100.000 aurreko astean), 22,0/100.000 gizonetan eta 23,0/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 138,0 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 67,9 eta 33,4 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 8,6koa izan da 100.000 biztanleko (7,5/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 1,3koa 100.000 biztanleko (0,9/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,1 kasukoa 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,7koa izan da (% 1,5 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 46,5era igo da aste honetan (% 41,2 aurreko astean), eta ABSrena % 13,9raino igo da ere (% 10,7 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	50. astea		49. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	402	0,7	400	1,5	2837	2,9
Influenza	409	46,5	417	41,2	2597	32,7
ABS	381	13,9	374	10,7	2358	7,0

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuak (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIArein zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gainditu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromean, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuek adierazten dute atalase epidemikoa 2025/42 astean gainditu zela. Aste honetan, intentsitate altuko mailara iritsi da.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gainditu zen eta aste honetan intentsitate baxuko mailan mantentzen da.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 1040 gripe-birus, 257 ABS eta 13 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 1040 gripe-birusetatik, 591 A motakoak izan dira, 305 A(H3), 143 A(H1)pdm09 eta B motako bat. 2025/40 astetik 4914 detekzio erregistratu dira, 4902 (% 99,8) A motakoak eta 12 (% 0,2) B motakoak. Azpitipatutako A motako 2559 birusetatik, 1595 (% 62,3) A(H3) eta 964 (% 37,7) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko abenduak 18

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza